

Bankuaren jasangarritasun-politika berria Administrazio Kontseiluak onartu du

Kutxabankek gizarte jasangarriagorako trantsizioan eragile aktibo izatea aurreikusten du

- **Negoio-eredu jasangarrian aurrera egiteko konpromisoa hartzen du, bai eta kapital pribatuaren fluxuak horrelako inbertsioetara bideratzeko konpromisoa ere**
- **Politika berria zehazteko, besteak beste, Nazio Batuen Erakundeak bultzatutako GJHak eta Parisko Akordioa hartu ditu erreferentziazat**
- **Kutxabankek, 2020az geroztik, ESGko zuzendaritza bat du, Lehendakartzako taldeari atxikia, baita Klima Aldaketaren Proiektuak Kudeatzeko Bulego bat ere**

2021eko maiatzaren 27a. Kutxabankek Jasangarritasun Politika berria du, Administrazio Kontseiluak gaur onartua, eta berarekin **negoio-eredu jasangarrian aurrera egiteko** konpromisoa hartzen du, jarduera korporatiboak nahiz finantzarioak ekonomian, gizartean eta ingurumenean duten eragin positiboa maximizatzeko.

Bezeroekin eta hornitzaileekin **epe luzerako harreman komertzialak ezartzen eta garatzen** saiatuko da Kutxabank, hurbiltasunean, gardentasunean eta jardunbide egokietan oinarrituta.

Erakundeak **produktu eta zerbitzuen eskaintza** egokitu nahi du, negozio-eredu eta bizi-estilo gero eta jasangarriagoen eskaerari erantzuteko, gero eta handiagoa baita, eta, aldi berean, irisgarritasunaren ikuspegitik finantza-inklusioa errazteko konpromisoa hartzen du.

Politika berri honen beste helburuetako bat **kapital pribatuaren fluxuak inbertsio jasangarrietara birbideratzea** izango da, bezeroei negozio-eredu jasangarriagoetarako trantsizioan lagunduz. Horretarako, aurrera egingo da finantzaketa jasangarriko produktuen garapenean, ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak izan ditzaten. Erakundeak konpromisoa hartzen du bere akziodun eta inbertitzaileei jasangarritasunari buruzko informaziorako sarbidea bermatzen jarraitzeko, baita elkarrizketa-bide egokiak ezartzeko ere, bere interes-taldeei arreta arina eta kalitatezkoa emateko.

Politika berriak **aurrera egin** nahi du **Erakundearen erabaki estrategikoetan**, bereziki klima-aldaketaren ondoriozko arrisku eta aukeretan, **ASG alderdiak txertatzeko**.

Jasangarritasun Politika egiteko, Kutxabankek kontuan hartu ditu **hainbat erakunderen erreferentziak eta gomendioak** jasangarritasunaren arloan. Jarraibide horiek gidari

izango dira Erakunde bere banka jasangarriaren eredia finkatzen jarraitzeko burutzen ari den prozesuetan.

Erabilitako erreferentzien artean, Nazio Batuen Erakundeak bultzatutako **Garapen Jasangarrirako Helburuak** (GJH) eta **Parisko Akordioa** dira nabarmentzekoak, baita Europar Batasunaren Europako Itun Berdea ibilbide-orria eta **Europar Batasunaren Finantza Jasangarrien Plana** ere. Gainera, kontuan hartu dira Europako Banku Agintaritzaren, Europako Banku Zentralaren, Espainiako Bankuaren eta Finantza Sistema Ekologizatzeako Banku Zentralen eta Ikuskatzaileen Sarearen gomendioak, baita Financial Stability Board-ek (FSB) ezarritako Task Force on Climate-Related Financial Disclosures (TCFD) delakoaren gomendioak ere.

Jasangarritasuna, zeharkako konpromisoa

Politikak zehar-izaera da, eta Taldea osatzen duten sozietate guztiei eragiten die, bakoitzak bere jarduera-eremuan hartutako konpromisoak txerta ditzan, proportzionaltasun-irizpideekin.

2020. urtearen hasieran, Kutxabankek **ESGko Zuzendaritza** berri bat sartu zuen, Lehendakaritzako taldeari atxikia. Zuzendaritza horren egitekoa da ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideekin konprometitutako finantzekin lotutako alderdiak modu integralean kudeatzea. Ordudanik, klima-aldaketarekin eta jasangarritasunarekin lotutako gaiak indartzeko lanean ari da talde berria Kutxabankeko negozio-arlo guztietan eta zerbitzu zentraletan.

Gainera, 2020ko urritik, **Klima Aldaketaren Proiektuak Kudeatzeko Bulego** bat du. Bulego horretan, hainbat sailek parte hartzen dute, gai estrategiko honi buruzko proposamenak egiten eta neurriak ezartzen konprometituta daudelarik.

Klima Aldaketaren PMOk ikuskatzaileen eskakizunak eta COP25 izenpetzean hartutako konpromisoak aztertu eta horiei erantzuten die, ingurumen-inpaktua kalkulatzeko metrikak eta metodologiak txertatuz. Era berean, trantsizio-prozesu honek hainbat arlotan sortuko dituen negozio-aukerak aztertzen ditu, adibidez, energia garbi, garraio, etxebizitzaren eraikuntza eta birgaikuntzan, besteak beste, eta eskaintza berde lehiakorra garatzen jarraituko du.